



Arartekoaren 2013ko azaroaren 19ko ebazpena. Horren bidez, derrigorreko baimena ez duen terraza bat kentzea gomendatzen zaio Santurtziko Udalari.

Aurrekariak

1. Izapidetzen kexan azaltzen denarena arabera, ez da bete 2011ko maiatzaren 13ko alkatetza-dekretua, 843 zk.koa, (...) tabernan (...) terraza bat jartzeko baimena ukatu ziona (...) jaunari.

Ebazpenean, baimena ukatzeaz gain lizentziarik ez zuelako, terraza kentzeko ere agintzen zitzaion, indarreko araudiaren kontrakoa izategatik. Ebazpen berean ohartarazten zenez, terraza adierazitako epean kendu ezean, udalak subsidiarioki eta interesdunaren lepotik betearaziko zuen agindua, hala jokatzuz gero bide publikoan aurkitzen zituen ondasunekin egoki zeritzona eginez.

Udalak, ordea, ez du esku hartu ebazpena eman zenetik, 2011ko irailaren 14an jabeen elkargoak ere agindua betetzeko eskaera bat aurkeztu zuen arren.

2. Erreklamazioan adierazitakoak azterturik, informazioa eskatu genion Santurtziko Udalari. Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi-ordezkariek erantzun gisa helarazi zigun jakinarazpenaren arabera, iragandako denboraren ondorioz eta tarte horretan irekiera-lizentzia titularrez aldatu zenez, 843/2011 Dekretuan aipatzen zen berrezarpen-prozedura iraungita zegoen, eta beraz, espedientea artxibatu egin behar zen.

Bestalde, honako hau gaineratzen zuen:

“A este respecto decir que determinadas actuaciones y usos ilegales en dominio público o en zonas de servidumbre no prescriben, es decir en cualquier momento se puede iniciar el procedimiento.

Sin embargo la posibilidad de inicio de otro procedimiento de restauración con el actual titular de la licencia de apertura queda totalmente limitado debido a que en la actualidad el establecimiento permanece cerrado, según consulta realizada a los servicios de inspección.

Por todo ello no sería procedente, en caso de que la instalación de la terraza volviera a colocarse, un procedimiento de legalización, por lo que en su caso se podría requerir directamente mediante el inicio de un nuevo procedimiento de restauración a tenor de lo establecido en la Ley de Suelo y Urbanismo del País Vasco y de la Ordenanza de Instalación de Terrazas en la vía pública del municipio de Santurtzi, cuya aprobación definitiva se producirá en breve, evitando la previa solicitud de legalización agilizándose su tramitación.”





3. Geroago, hainbat izapide egin ditugu udal-zerbitzu teknikoaren aurrean, jakin nahi baikenuen zertan zegoen hautsitako arauaren berrezarpenerako eta espazio publikoaren erabilera ez-baimenduak galarazteko prozedura.

Behin baino gehiagotan azaldu zaigu, haatik, oraindik ez dutela esku hartu salatutako auzian hainbat arrazoiengatik, horietako bat tabernak izandako titularitate-aldaketak, azkena, antza, 2013ko ekain edo uztailekoa. Oraingo titularrek ere, bestalde, ez dute terraza legeztatu, ezta udal-zerbitzuek legez kanpoko terraza kentzeko prozedurarik izapidetu ere.

Aurrekariak ikusita, hona hemen ebazpen hau emateko oinarritzat hartu genituen

Gogoetak

1. Santurtziko Udalak ordenantza bat du erabilera publikoko espazioetako terrazak arautzeko.

Ordenantzaren 2. artikulua araberan, terrazak mahaien, aulkien eta abarrekoen multzoak dira, erabilera publikoko espazioan kokatuak eta legeztatuta edo legeztatzeko izapideetan dauden ostalaritza-establezimenduek aldi baterako edo etengabeko osagarri gisa erabiliak.

Komenigarria da gogoratzea jabari publikoko ondasunen erabiltzeak duen izaera komun edo herritar guztientzako, ondorioz ekartzen duena herritar batzuek delako ondasuna erabiltzeak ezin eragotz dezakeela beste interesdunek ere erabiltzea. Espazio publiko batean erabilera berezi bat ezartzen bada, terrazak kasu, ondorioz espazioa merkataritza-jarduerari bati atxikita utzita, beharrezkoa da berariazko baimen bat, erabilerarako baldintzak zehaztuko dituen eta tasa bat ezarriko duena irabazpenezko aprobetxamenduaren truke.

Kasu honetan, beraz, jabari publikoaren erabilera berezi bat dago, lizentziaren beharra duena espazio publiko batetik aprobetxamendu pribatiboa lortzeagatik, hala jasotzen baitu 77. artikuluan Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Erregelamendua, ekainaren 13ko *1372/1986 Errege Dekretuak onartuak*.

2. Ukitutako jabe-elkargoak aurkeztu zuen erreklamazioari dagokionez, erantzunean nahiko azalpen nahasiak eman ziren udalaren esku-hartzeaz edo, hobeto esanda, legez kontrako terraza lehenbailehen kentzeko agindua bete ez izanaren arrazoiez.

Ezin ahaztu 2009tik jakina zela terraza baimenik gabe jarrita zegoela. Horren adierazgarri, 2009ko uztailaren 23an Obra eta Zerbitzuen buruak adierazi zuen terraza lokalaren jardueraren zabalpen bat zela, bide publikorantz egina, eta hainbat elementu finko zituela, hala nola instalazio elektrikoa, ikus-





entzunezkoak eta toldoak. Txosten berean gaineratzen denez, terrazak ez zuen betetzen bide publikoko terrazei buruzko udal-ordenantza, aipatutako elementu finkoak aurretiazko udal-lizentzia gabe jarri zirelako, arauetako distantziak errespetatzen ez zituelako, establezimenduaren fatxadaren mugak gainditzen zituelako, eta okupatutako superfizie osoa estaltzen zuen moketa finkoak eta toldoek eguneroko garbiketa-lana oztopatzen zutelako.

Arau-haustea dela-eta instalazioaren titularraren aurka izapidetu daitekeen zehapen-espedienteaz gain, ordenantza arautzailearen 47.2 artikulua bide publikoan udal-lizentziarik gabe jarritako terrazak lehenbailehen kentzea aurreikusten du kautelazko neurri gisa. Udal-arau horretan oinarritzen da, beraz, udalak terraza kentzeko eman zuen agindua.

3. Aztertuko dugu, amaitzeko, udalaren beste baieztapen bat, 843/2011 Dekretuan aipatzen zen berrezarpen-espedientea iraungita zegoelakoa eta, ondorioz, artxibatu egin behar zelakoa. Dekretuak behin betiko eragina zuen bide administratiboan, eta jarritako terraza beranduenez 15 eguneko epean kentzeko agintzen zuen, ohartaraziz agindutakoa epe horretan bete ezean udalak berak kenduko zuela interesdunaren kontura.

44. artikuluan adierazten duenez azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, ofizioz hasitako espedienteak iraungi egiten dira eta, beraz, prozedurak artxibatu egin behar dira baldin eta, ebazteko gehieneko epea agorturik, esanbidezko ebazpenik izan ez bada.

Gorago esan dugunez, ordea, kasu honetan esanbidezko ebazpen irmoa eman zen, terraza jartzeko baimena ukatuz eta instalazioa 15 eguneko epean kentzeko aginduz. Ez dago, hortaz, espedientea iraungiarazten duen arrazoirik.

Bestelako eztabaida litzateke ea terraza kenarazteko eta, horren ezean, udalak subsidiarioki kentzeko aginduak ba ote duen, berez, betetzeko eperik, edo bestela esanda, epemugarik ote dagoen egintza administratiboak bete daitezten.

Jurisprudenzian finkatuz joan den interpretazioaren arabera, horrelako egintzek betebeharrak pertsonal bat dakarkiotenez administratuari, aplikatu beharrekoa da Kode Zibilarren 1.964. artikulua, 15 urteko epea aurreikusten duena horrelako egintzei begira. Beraz, udalak hamabost urteko epea du mota horretako egintza administratiboak bete eta betearazteko, jakinarazten dituen unean zenbatzen hasita. Ildo horretatik jo zuen, esate baterako, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak 2000ko otsailaren 17ko Epaietan.

Hari beretik jarraituz, horrelako betearazpen-aginduak egin behar pertsonalak dira baimenik gabe terraza jarri zuenarentzat, eta horregatik uste dugu establezimendua itxita egotea edo beste titular baten esku geratu izana ez





direla oztopoa baimenik gabe terraza jartzeaz gain hura kentzeko agindua bete ez zuenaren aurkako agindu subsidiarioa bete dadin.

Laburbilduz, egintza lehenbailehen bete beharko litzateke, kontuan izan behar baita baimenik gabeko instalazio bat dela, espazioa 2009az geroztik okupatzen duela gutxienez, eta Obra eta Zerbitzuen buruak bere txostenean adierazitakoaren arabera ez dela legeztagarria.

Horrek ez du esan nahi, bestalde, tabernaren ondorengo titularrak ere terraza erabiltzen badu udalak beste espediente bat ireki ezin dezakeenik hirigintza-arauak hausteagatik eta terrazak udal-baimenik ez izateagatik.

Azaldutakoagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, Arartekoa sortu eta arautzekoak, 11 b) artikuluan aurreikusten duenari helduz, hona hemen erakunde honen

GOMENDIOA

Egiaztatuta geratu denez (...) jaunak ez duela bete terrazarako baimenik ez izateagatik eman zitzaion instalazioa kentzeko agindua, Santurtziko Udalak lehenbailehen bete beharko du (...) tabernaren ondoko terraza eta horren elementu osagarriak kenarazteko agindua.

